

# PROTOTIPOAK

## 'BARNEALDEKO LORATEGIA' ARGAZKILARITZAKO DEIALDIA

---

Azkuna Zentroak herritarren partaidetza lortu nahi du, 'Barnealdeko lorategia' lankidetzako obra sortzeko. Etxeko landareen argazkiekin eratutako mosaiko bat izango da, eta Prototipoak topaketen II. edizioan egongo da ikusgai, maiatzaren 30etik ekainaren 3ra bitartean.

PROTOTIPOAK 2018 programa eratzen duten ideiak jasotze aldera, pertsonen landareekin zer-nolako harremana dugun eta gure etxea haiekin nola partekatzen dugun islatu nahi dugu edizio honetako irudian. Horregatik, deialdia honen bidez, barrualdeko landareen argazkiak bilatzen ditugu, hau da, etxe barneko espazioetan kokatutako landareenak; ez lorategietan, balkoietan, terrazetan edo kanpoko bestelako tokietan dauden landareenak.

Nahi genuke etxean duzuen landare baten argazkia bidaltzea, gogokoen duzuen landarearena, etxea partekatzeko duzuen horrena. Eta nahi genuke zuen gogoko landare horren irudiak normalean landareak etxean betetzen duen tokian har dezazuen, landareak inguruan izaten dituen baldintzetan.

Argazkiekin eratutako mosaikoan parte hartzearekin batera, 2018ko Prototipoak topaketen irudi gisa erabiltzeko argazki batzuk aukeratuko ditugu.

## OINARRIAK

### Lanak aurkezteko epea

Lanak jasotzeko epea 2018ko urtarrilaren 11n hasi, eta otsailaren 22an amaituko da (bi egunak barnean hartuta). Ez dugu Deialdirako onartuko behean adierazitako e-postako helbidean epe horretatik kanpo jasotako parte hartzeko eskaerarik.

### Lanak aurkezteko modua eta bidalketa

- Adin guztietako pertsonen partaidetzara zabaldutako proiektua.

Parte hartu dezakezu:

E-postaz:

- E-postaz bidaliko dira [azkunazentroa@azkunazentroa.eus](mailto:azkunazentroa@azkunazentroa.eus) helbidera, gaien hau adierazita: Jardin Interior Prototipoak18

- Mezuaren atalean hau jaso beharko da: Izen-deituak, harremanetarako telefonoa (ahal dela mugikorra), e-posta, jaiotze-data, NAN eta helbidea. Datu horiek ez dituzten argazkiak automatikoki geratuko dira Deialdiatik kanpo.

- Artxibo guztiak JPEG formatuan egongo dira erresoluzio maximoarekin, eta kolorean.

Izendatzeko, deitura eta, jarraian, izena eta zenbakia jarriko dira.

Adb.: gomezXabier01.jpeg

- Jasotako argazki guztien artean argazki batzuk hautatu ahal izango dira PROTOTIPOAK 2018ko komunikazio eta difusioaren irudi izateko.

- Helburu honetarako aukeratutako irudiek sari sinbolikoa jasoko dute eta egilearen izena argitaratuko da.

- Deialdiari buruz zalantzaren bat egon edo argibideren bat behar izanez gero, e-posta bidez argituko da helbide honetan: [azkunazentroa@azkunazentroa.eus](mailto:azkunazentroa@azkunazentroa.eus)

---

### **Jabetza intelektuala eta irudi-eskubideak**

1. Parte-hartzaileak deialdian parte hartze hutsarekin adierazten eta bermatzen du (i) Deialdira aurkeztutako argazkien jabetza intelektualeko eskubide guztien egile eta titular bakarra dela (finkatze, erreproduzio, banaketa eta mota guztietako komunikazio-publikoko eskubideak barnean hartuta eta mugarik gabe, baita eskura jartzeko eta eraldatzeko eskubidea ere) (“**Jabetza intelektualeko eskubideak**”), (ii) argazkietan ager daitezkeen hirugarrenen behar adinako baimena duela —eta, hala dagokionean, argazkietan ager daitezkeen adingabekoen guraso edo tutoreena— Azkuna Zentroak argazkietan ageri den irudia ustiatu dezan, datorren paragrafoan azaldutako edozein modutan eta, oro har, (iii) hirugarrenen beharrezko eskubide guztiak dituela jabetza intelektualaren edo industrialaren arloan, argazkian ageri diren elementuei dagozkienez.

Parte-hartzailearen erabateko ardura dira irudi-eskubideen, jabetza intelektualaren edo industrialaren inguruan egin daitezkeen erreklamazio guztiak; Azkuna Zentroa kalterik gabe geratuko da beti, berme horiek betetzen ez direlako hirugarrenek aurkez ditzaketan erreklamazioetan.

2. Parte-hartzaileak, deialdian parte hartuta, Azkuna Zentroari ematen dizkio argazkiei buruzko jabetza intelektualeko eskubideak, Azkuna Zentroan formatu txikiko erakusketa batean ustiatu ahal izateko; ustiaketa horretan, argazkiak osorik edo zati batean erabili ahal izango dira, eta isolatuta edo beste eduki batzuekin batera. Zentzu horretan, Azkuna Zentroak du argazkiak aldatu, editatu edota manipulatzeko eskubidea, erabiliko diren

euskarri grafikoetara egokitzeko.

Era berean, parte-hartzaileak bere parte-hartzea aurkezten duenean, baimena ematen dio Azkuna Zentroari, bere izena erabili eta ustiatu dezan, eta, hala dagokionean, argazkietan ageri den bere irudia erabil eta ustiatu dezan ere bai, aurreko paragrafoan adierazitako moduan.

Hala izena eta irudia erabiltzeko baimena, nola hemen ezarritako jabetza intelektualeko eskubideen lagapena, mundu guztiarentzat dira, era ez eskusiboan, doan, eta eskubide horien legezko babesak duen gehieneko iraupenerako.

3. Aurreko paragrafoan dauden lagapenei kalterik egin gabe, bere argazkia deialdian aukeratuta izanez gero, parte-hartzaileak Azkuna Zentroari lagako dizkio argazkien jabetza intelektualeko eskubideak, nahi dituen argazki guztiak hedatu ditzan, edozein bitartekoren edo formaturen bidez, eta hedatzeko, komunikatzeko edo banatzeko edozein sistema, prozedura edo mota erabiliz (Internet barne, baina ez hori bakarrik). Argazkia osorik edo zati batean hedatu daiteke, eta isolatuta edo beste eduki batzuekin batera erabili ere bai. Zentzu horretan, Azkuna Zentroak du argazkiak aldatu, editatu edota egokitzeko eskubidea, erabiliko diren euskarri grafikoetara egokitzeko. Era berean, Azkuna Zentroak argazkiren bat erabiltzen badu Topaketaren irudi gisa edo beste erakusketaren batzuetan, argazkiaren egilea zein den zehaztuko du.

Bestalde, bere argazkiren bat deialdian aukeratuz gero, parte-hartzaileak baimena emango dio Azkuna Zentroari bere izena erabili eta ustiatzeko, eta hala dagokionean, argazkietan ageri den bere irudia erabili eta ustiatzeko ere bai, aurreko paragrafoan adierazitako edozein modutan.

Hala izena eta irudia erabiltzeko baimena, nola hemen ezarritako jabetza intelektualeko eskubideen lagapena, mundu guztiarentzat dira, eskubide horien legezko babesak duen gehieneko iraupenerako, era eskusiboan aldi mugatu baterako, eta, hala behar denean, argazki guztien edo batzuen erabilera baimentzeko eta lagatzeko berariazko eskumenarekin. Izena eta irudiak erabiltzea eta jabetza intelektualeko eskubideak lagatzea baimentzeagatik ez da inolako kontraprestaziorik emango.

### Datuen babesa

- Centro Azkuna de Ocio y Cultura, S.A. da datu pertsonalen **tratamenduaren arduraduna** (“**Azkuna Zentroa**”), eta hemen du egoitza soziala: Arriquiribar plaza, 4, 48010 Bilbo, Bizkaia.
- Datuen **tratamenduaren helburua** hau da: (i) Deialdiko parte-hartzea



kudeatzea eta kontrolatzea (adb.: Deialdian argazkiak erregistratzea edo Topaketekin lotura zuzena duen informazioa bidaltzea), (ii) Deialdiko haborokina emateko modua kudeatzea eta kontrolatzea, hala behar denean, eta (iii) Argazkiak erabiltzea (horien egilearen izenarekin batera) Topaketaren irudi gisa, edo, hala behar bada, Azkuna Zentroak etorkizunean Topaketei loturik antolatzen dituen erakusketetan.

- Emandako datu pertsonalak topaketarekin zerikusia duten ekitaldiak amaitu arte **gordeko dira** (Azkuna Zentroak etorkizunean antolatu ditzakeen erakusketak barnean hartuta). Dena dela, ekitaldi horiek amaitutakoan edo datuen baimena indargabetzean, sei urtez gordeko dira blokeatuta; aldiz, aurrez aipatutakoa baino epe luzeagoa denean, balizko erantzukizunen inguruko ekintzak balio gabe geratu arte gordeko dira.
- Datuen tratamendurako **legitimazio-arrazoia** aldean arteko harreman juridikoa burutzea da eta Azkuna Zentroaren legezko betebeharrak betetzea.
- Azkuna Zentroak hirugarrenei **laga** ahal izango dizkie argazkiak (horien egilearen izenarekin batera), Topaketa ospatzeko, hedatzeko eta sustatzeko; hori dela eta, argazki horietako batzuk erabili ahal izango ditu Topaketaren irudi gisa, dela Azkuna Zentroak etorkizunean antolatutako erakusketetan erakusgai jarritz, dela Internet bidez. Adierazitakoez gain ez zaizkie datuak hirugarrenei lagako, legezko betebeharrak ez bada.
- Parte-hartzaileek **eskubidea** dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko, haien tratamenduaren aurka agertzeko, emandako baimena baliogabetzeko edo datuen tratamendua edota eramangarritasuna muga dezaten eskatzeko. Egokiak diren idatzitako eskabideak bidali ahal izango dira, lehen aipatutako eskubideez baliatzeko, nor zaren egiaztatuta, [azkunazentroa@azkunazentroa.eus](mailto:azkunazentroa@azkunazentroa.eus) e-postako helbidera, edo Azkuna Zentroaren egoitza sozialera igorritako gutun bidez (Datuen Babesa atalari). Horrez gain, parte-hartzaileek eskubidea dute Espainiako Datuak Babesteko Agentzian erreklamazioa aurkezteko (datuak babesteko esparruko kontroleko agintaritzan). Informazio gehiago: [www.agpd.es](http://www.agpd.es).
- **Hirugarrenen datuak:** Deialdian parte hartzean parte-hartzaileek hirugarrenen datuak emanez gero (adib., argazkietan ageri direlako), aitortzen eta bermatzen dute hirugarren horiei klausula honen edukiaren berri behar bezala eman dietela, eta, hala behar denean, beraien baimena dutela. Azkuna Zentroak ez du zentzu horretan jarduera gehigarririk egin behar.

## Beste xedapen batzuk

Azkuna Zentroak beretzat gordetzen du oinarri hauek aldatzeko edo deialdia bertan behera uzteko eskubidea, egokitzen jotzen badu.



Deialdi honetan parte hartze hutsak esan nahi du osorik onartzen direla lehen azaldutako oinarri guztiak, argazkiak aurkezten diren unetik bertatik, eta, orobat, Azkuna Zentroak oinarri hauetaz egingo duen interpretazioa ere onetsiko dela.

Oinarri hauek interpretatzean eta betetzean, Espainiako legeria beteko da. Sariak ezar daitekeen zerga-araubidearen mende egongo dira, indarrean dagoen legearen arabera.

Oinarri hauei loturik auzirik bada, Bilbo hiriko epaitegi eta auzitegi zibilek izango dute horien berri izateko eskumena.